

Irati Elorrieta

◆ IDAZLEA



## Gerratik gerrara

EAEKO AUTONOMIA ESTATUTUAREKIN batera jaio zen Irati Elorrieta Algortan. Beruneko urteak deitu izan diren sasoi zurrumbilotsu haieran hazi zen amaren sabelean eta handik kanpo. Giroa ezegonkorra izanik, baziren balizko kolpe militar baten zurrumuruak, eta politikaren gerizpeetan gertatzen zenak ezinegona sortzen zuen bere gurasoengan. Irati Elorrieta urte bete eta bi hilabeteko haurra zenean gauzatu zen kolpea, Antonio Tejero buru, zorionez, arrakastarik gabe.

Unai Elorriagaren *Iazko bezurrak* nobelan Irati Elorrietaren haurtzaro eta gaztaroko bizitoki izan den Algorta pentsatzen du Irene Arriasek. Algorta pentsatzen du pixka bat eta, batez ere, indarkeria. Autoritatea, obediencia eta “soldadu asko behar da, hogeita bat urtekoak”. Irene Arriasek, indarkeria pentsatzen duenean, haren grabazioak ere pentsatzen ditu: “Pertsonak begietatik 40 zentimetrora hiltzen, odolusten, ordenagailu batean”. Irati Elorrietak liburu hori 35 urterekin irakurri duenean, zenbait egunez, irudi batzuk noiz erakutsi behar diren eta noiz ez eztabaidatu da. Olatu batek Bodrumeko hondartza batera Ailan Kurdi hiru urteko umearen hilotza eramanean eta, hainbatek, telebisitako irudietan ikustean, negar egin duenean. Irati Elorrietak bere seme txikiarena ikusi du, itotako umeak izen propioa eta haren heriotzak arrazoi bat izan arren, haur denen aurpegia ezkututzen zuelako Turkiako hondartza hartan etzanda. “Atzoko ume hilak, bihar lurruna”, idatz lezake Elorriagak.

*Iazko bezurrak* baino hilabete lehenago argitaratu zuen Mikel Peruarenak *Su zelaiak*, Gerla Handira hiltzera joan ziren soldadu euskaldunen belaunaldiaz.

Beleek eta mitek uzta jan zuten uda hartan, kantuan ere zenbaitzuk, “*Berlinerat!*” esanez partitu ziren 21 eta 48 urte arteko gizon gehienak. Alemanek preso hartutako soldadu euskaldunen kantuen grabaketak entzun zituen Irati Elorrietak Berlingo Etnologia Museoan, ehun urte geroago. *Gernikako Arbola* abestu zuen gizonaren ahotsak zirrara handia eragin zion.

Bi nobelak argitaratu eta ia urtebetera irakurri ditu Irati Elorrietak, bata bestearen jarraian, 2015eko udan, Euskal Herrian pasa dituen asteetan. Sirian eta Iraken, eta Europako mugetan milaka hiltzen ari direnean, lau milioi erbesteratu kalkulatu direnean. Berlinen, oporretatik bueltan eta Irene Arriasek pentsamenduekin kutsatuta, Boko Haramek bahituta izan dituen eta ihes egitea lortu duten emakume nigeriarrei buruzko erreportajea irakurri du. Milaka dira talde islamista horren krudelkeriaren

biktimak ere, milioi inguru ihesean. Basatia da emakumeok kontatzen dutena, bizi izan dutena, ikusi dutena. *Zeitmagazine*ko portadan, zuri-beltz kontrastedunean, aurpegi erdia ilunetan eta beste erdia argizatuta, 14 urteko Talatu ikusten da. Erretratu horrek *National Geographic* aldizkariako portada ikonikoa ekarri dio gogora Irati Elorrietari. 1984 hartan, begiraleari zuzen-zuzenean begiratzen zion neska afganiarra, Sharbat Gula, Pakistaneko errefuxiatu zela batean erretratatu zuen Steve McCurry argazkilariak.

Alemaniarra egunero hamar mila errefuxiatu hiltzen ari omen diren udazken honetan, Irati Elorrietak duen sentimendua da, kontakizunak, kronikak, irudiak, ez direla inoiz nahikoa. Hutsune handi bat geratzen dela bete ezinik, ulertu ezinik. ■



Antton Olariaga